

Bermeotar gazteek orain gutxiago darabilte euskara

Hala ere, 1989tik honako datuei begiratuta, goranzkoa izan da joera, azken bost urteetan izan ezik. Bertakoek uste dute arazoa ez dela Bermeokoa bakarrik. Gazteak euskarara gehiago hurbiltzeko euskara bestelako eremuetan ere landu egin behar dela, alegia.

ONINTZA ENBEITA

Argazkia: L. J. / Argazki Press

ASKOTAN BEGIAREN ARABERA, datuak modu batera edo bestera irakurtzen dira. Bermeon (17.069 biztanleko Bizkaiko kostako herria), euskararen erabileraren kale neurketari dagokionez, datuak ez dira guztiz onak, baina guztiz txarrak ere ez. 1989an lehenengo kale neurketa egin zenetik hona, zenbaki guztiek egin dute gora, baina gazteen artean, 2001etik 2006ra behera egin du euskararen erabilerak. Maite Alvarez de Zarate Udaleko euskara teknikariaren arabera, “pozik egoteko motiboak badaude, baina lana non egin ere badago”.

Gazteek euskara gutxiago egitea ez da Bermeoko arazoa bakarrik. Horren errua gauza bat baino gehiagok dutelakoan dago Alvarez. “Aztertu behar dena da, gazteentzat zer dagoen euskaraz. Euskal Telebistan, esate baterako, zer dago nerabeentzat? Kultura eskaintza eta administrazioa zerbitzurik gehienak ez daude guztiz euskaratuta eta gainera, gazteek kanpoko gauza asko kontsumitzen dituzte. Euskal literaturan badago zer irakurri, baina azken batean, gurea irla bat baino ez da beste guztien artean”. Berak ikusten duena da, azkenean, euskaldunok ez daukagula gure bizitza arlo guztietan eta 24 orduz euskara hutsez egiteko aukerarik.

Baina lan egin dute Bermeon, eta hori igarri da zenbait esparrutan. Egun, Bermeoko ikastetxeetan euskaraz baino ez da irakasten. Ez



Herri askotan bezalaxe, gazteek euskara zenbateraino erabiltzen duten da kezka handietakoa Bermeon. Dena dela, Udaleko euskara teknikaria den Maite Alvarezek azpimarratu du errua inori botatzen hasi aurretik denon hizkuntza ohiturak aztertu beharko genituzkeela. Argazkian, Itsasoko Egunean, kaian.

dago ikastetxe batean ere gaztelaniazko eskaintzarik. Ikastetxe bakoitzak arduradun bat dauka Euskararen Aholkularitza Batzordean. Egindako lanaren arduradun bakarra ez da Udala beraz. Udaleko Euskara Sailak erakunde barruko euskararen erabilerara begira lan handia egiten du, eta herrira begira Aholkularitza Batzordea du lagun. Koordinatzaile eta sustatzaile bada Udala, baina ez eragile bakarra.

Askotan esaten da, erraz diogula neska-mutilek eskolan baino ez dutela egiten euskaraz, baina Alva-

rezek uste du sakon aztertu behar direla guztion hizkuntza ohiturak. Berak akats argia ikusten du administrazioan eta hezkuntzan: “Esaten dugu neska-mutilek eskolatik irten eta ez dutela euskararik egiten, baina euren arazoa bakarrik ez da. Badakigu, irakasleek euren artean gaztelaniaz egiten dutela askotan. Administrazioan ere antzera gertatzen da. Maila formalean, tramiteak-eta egiteko orduan euskaraz funtzionatzen ikasi dugu, baina gero, langile askok euren artean gaztelaniaz egiten dute

Hizkuntza normalizazioa

berba”. Ikastetxeetako euskararen erabilera planean parte hartuta, egia da Bermeoko irakasle guztiek euren artean gaztelaniaz egiten dutenik ezin dela esan. Hala ere, badaude, irakasleei ere eskuetatik alde egiten dieten gauzak. Irakasleen joan-etorri handia dago orokorrean eta guztien jarreretan ezin da berdin eragin.

Bermeoko Euskararen Aholkularitza Batzordeak esparru askotan behar egiten du: enpresa mundua, ikastetxeak, elkarteak, kirola... Baina badago garrantzi berezia ematen dioten arloa: belaunetz belauneko transmisioa. Ekimeneren artean daukaten “ekintza izarra” jaio berrientzako bertsoak dira. “Bermeon jaiotzen den ume bakoitzari bertsoa oparitzen diogu, euskarazko kantuen CDarekin eta kotxerako pegatinarekin. Urte amaieran liburua egiten dugu bertso guztiek”, dio Alvarezek. Bermeoko bertsolariek hasitako lanarekin, Gernikako Lili-Bertso taldekoek jarraitzen dute orain.

Dendetako ahalegina

Merkataritzan ere izan dute zer eginik. Iturri zapata dendan sartu, eta Iturrik hartu gaitu: “Horrela deitzen didate denek”. Rosario Iturri da berez. Zapatak saltzetik aparte, merkatarien elkartearen lanean ari da. Kartel batzuk euskarara hutsean ditu eta beste batzuk euskaraz eta gaztelaniaz: “Udalarekin egiten dugu lan bai, baina gure artean ere hainbat gauza aldatu behar izan dira. Ni guztia euskaraz jartzearen aldekoa naiz, baina beti ezin izaten dut lortu”. Argi dauka

euskararen normalizatzarako bide bakarra egitea dela. Merkatarien izenean, Aholkularitza Batzordeko zein bestelako mila ekimeneren parte hartu du, eta bere izenean, beti defendatzen du euskara.

Hala ere, ez ditu beti erantzun onak aurkitu Iturrik. “Merkatarien elkartearen guztiz euskaraz funtzionatzen hasi ginen. Halako batean, batzuk kexatu egin ziren eta berriro hasi ginen gutunak-eta euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen”. Hemen bizi direnek ikasi egin beharko luketela uste du, badaudelako Bermeon erraztasunak: euskaltegiak, motibazio taldeak, gurasoentzako euskara eskolak... orain, dendako kartel batzuk ere gaztelaniaz eta euskaraz jarrita ditu: “Aspaldion, kanpotik etorritako jendea sartzen da, eta gaztelaniaz ere kosta egiten zaie gauzak irakurtzea, orduan euskaraz, pentsa! Saiatzen naiz denentzat eroso izan dadin nire komertzioa, baina garrantzitsuen euskara bera da”.

“Hizkuntza bizirik mantentzeko gure bizitzarako erabili behar da”, dio Alvarezek. Horretarako egunero erregistro guztietara zabaldu beharra dauka. Ikastetxeetan lan handia eginda dago, eta Aholkularitza Batzordean ari diren ordezkariek badakite, orain dela urte batzuk baino hobeto daudela alde horretatik. Hala ere, herri osoaren lana behar du euskarak. Aholkularitza Batzordean esan digute, “bakoitzak bere arloan ekitea” dela garrantzitsua. Ez dagoela arlo garrantzitsuenik. Euskarak esparru guztiak behar dituelako.

Transmisioari eta “etorri berriei” lotuta, hainbat ekimen ditu Bermeoko Euskararen Aholkularitza Batzordeak aurrera begira. Orain, herriko toponimia lantzen ari dira Udaleko Euskara Sailak koordinatuta zelanbait esatearren. Herriko ikerlari bik hasi zuten lanari bide eman nahi diote eta kale izendegia aldatzea da erronketako bat. “Badi-relako kaleak inork ezagutzen ez duen jendearen izenak dituztenak eta agian, jatorrizko izenez oso esanguratsuak direnak. Esate baterako Etxebarriatar Kresentziren kalea, Dendari kale izan zen lehena-go”. Alvarezek horiek berreskuratzeke lanean ari direla esan du.

Toponimia lantzen ibili direnean egindako lanarekin unitate didaktikoak ere sortu dituzte. Aholkularitza Batzordean ikastetxe guztietako ordezkariek daudenez, klasean erabiltzeko moduko lana egin dute. Lehen Hizkuntzan hasi eta batxilergoraino erabiltzeko moduko fitxak daukate eginda, eta laster, blogean jarriko dituzte. Bloga orain ari dira sortzen, eta albait arinen martxan egotea espero dute. Ikastetxeetan materiala erabiltzeko gogotsu daude. Azkenean, herriko historiatik abiatuta hainbat gauza lantzeko aukera izango dutelako.

Etorkinekin oster, herriko bizi-moduan murgil daitezten lanean ari dira. Eta gura dute, etorkinek ikustea euskararik ikasi ezean zerbait potoloa galtzen ari direla. Horretarako baina, argi dute, bertakoek erakutsi behar dietela hori. Hau da, bertakoek bizi behar dutela euskaraz. ■

Babeslea: Donostiako Euskararen Udal Patronatua

Donostia solasean
Euskara XXI. mendean
hitzaaldi zikloa



Hizlaria:
Joxean Muñoz

Tabakalera: euskara nazioarteko gune batean

Tabakalera ikusentzunezko kulturaren fabrika izango da, nazioarteari begira jarriko dena baina euskal kulturaren eta nazioarteko kulturaren arteko lotura bultzatzen saiatuko dena.

2008ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna, 19:00etan, Victoria Eugenia antzokiko Klub aretoan

